

TOP↑ARABA

ARABAN EUSKAL KULTURAREN SORMEN ESPARRUA SUSTATZEKO EGITASMOA

1.- SARRERA

Oihaneder Euskararen Etxearen helburu nagusien artean euskarazko kultura sormena suspertzea dago. Xede horrekin **sortzaileei** egitasmo eta jarduera ezberdinak eskaintzen dizkie eta testuinguru honetan kokatu behar da TOP↑ARABA.

Egitasmo berri honek **sormena sustatu, berrikuntza suspertu eta sareak sortzeko helburuak izanda, harremanetan jarri nahi ditu sortzaileak**, eta horretarako baliabide ekonomiko, tekniko eta materialak eskaini nahi dizkie.

TOP↑ARABAn **diziplinarteko sormen proiektu** ezberdinak laguntzeko **7.500€ko diru poltsa** osatuko da, eta gehienez **2 proiektu** babestuko dira.

Egitasmoak **Vital Fundazioaren** babesa du.

Dokumentu honetan deialdirako oinarriak zehazten dira, eta **komenigarria da arretaz irakurtzea**.

TOP↑ARABA deialdira proiektuak aurkezten direnean oinarri horiek onartzen direla ulertuko da.

2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?

Deialdia **Araban bizi diren kultur diziplina ezberdinetako norbanako sortzaileei** zuzenduta dago.

3.- HELBURUAK

Egitasmo honen **xede nagusia Arabako euskarazko kultura eta sorkuntza industrien sustapena da.**

Helburu hau ez ezik garrantzi handia duten beste helburu batzuk ere buruan ditu egitasmo honek:

- ✘ **Sortzaileei proiektuak garatzeko aukerak eskaintzea**
- ✘ **Sorkuntza industria ezberdinen arteko elkarlana sustatzea**
- ✘ **Sorkuntza industrien berrikuntza bultzatzea: sortzeko modu berriei bide eman**
- ✘ **Sortzaileen arteko sareak sortzea**
- ✘ **Sortzaileen profesionalizazioa bultzatzea**
- ✘ **Abian jarritako proiektuak, emaitzetatik haratago balioan jartzea**
- ✘ **Ezagutzaren transmisioa bermatzea**
- ✘ **Arabako biztanleei kultur produktuak eskaintzea eta eskuragai jartzea**
- ✘ **Arabako biztanleen pentsamendu kritikoan eta baloreetan eragitea**

4.- PROIEKTU MOTAK

Deialdi honen baitan **kultura-diziplina ezberdinak uztartzen** dituzten proiektuak kontuan hartu eta baloratuko dira. Bereziki baloratuko dira ekimen **berritzaileak**.

Kulturaren alorreko eta **euskaraz** garatutako edozein **kultura-ekoizpen** aurkeztu ahal izango da deialdi honetan.

5.- EGITASMOA eta EPEAK

Egitasmoan 4 fase nagusi aurreikusi dira:

1.- TOPAKETA	JARDUNALDIA	Euskal Herriko 3 profesional erreferenteen hitzaldiak eta mahaingurua
	LABORATEGIA	Arabako kultur sortzaileen arteko topaketa dinamizatua
2.- DEIALDIA	LANKETA	Proiektuak landu, egokitu eta aurkeztu. 3 asteko epea
	AUKERAKETA	Aurkeztu diren proiektuen aukeraketa
3.- PROIEKTUEN SORMEN PROZESUA	SORMEN PROZESUA	Aurkeztutako proiektuak garatu. Gehienez 6 hilabeteko epea
4.- PROIEKTUEN AURKEZPEN PUBLIKOAK	PROIEKTUEN AURKEZPENAK	Oihaneder Euskararen Etxean aurkezpena

1.- TOPAKETA

2021ko **otsailaren 27**an burutuko da. Egun osoko saioa bi zatitan banatuta egongo da:

- I. **Jardunaldia:** Goizeko saioan diziplinarteko sormen prozesuetan esperientzia duten Euskal Herriko **3 pertsona erreferentek** parte hartuko dute. Parte-hartzaileek profesional hauen ikuspegia eta esperientzia gertutik ezagutuko dituzte. Helburua **diziplina ezberdinak uztartzen dituzten sormen prozesuen osagaiez jabetzea** izango da.
- II. **Laborategia:** Arratsaldeko saio dinamizatu honetan parte hartzaileak protagonista izango dira. Hauei aldeztu aurretik diziplinarteko sormen prozesu baterako **idea** bat ekartzea eskatuko zaie. Saioaren hasieran sortzaileek **bere buruaren aurkezpen labur bat egin eta dakartzaten**

aurreproiektua edo ideia gainontzekoekin partekatu beharko dute. Ondoren, euren interesen arabera **taldeka bilduko** dira. Antolatzaileek beharrekoa ikusiko balute parte hartzeko **motibazio-gutun** bat eskatu ahal lukete. Jarduera honen helburua bikoitza izango da, **sortzaileen arteko sarea bultzatzea** eta **sormen prozesu ezberdinen hazia edo oinarria** zehaztea.

2.- DEIALDIA

- I. **Lanketa:** **martxoaren 22an**, eguerdiko **12:00etan**, proposamenak jasotzeko epea amaituko da. Hortik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Nola aurkeztu proposamen bat?

Proposamenak aurkezteko nahikoa izango da landu nahi den proiektu-txostena oihaneder@oihaneder.eus helbidera bidaltzea. Kultura diziplinarteko sormen proiektuak direnez **taldeka** aurkeztu beharko dira.

Proiektu-txostena **euskaraz** aurkeztu behar da, eta kontuan hartu beharreko **eremuak** hurrengo hauek dira:

1. Izenburua
2. Azpititulua
3. Deskribapena
4. Oinarrizko helburuak
5. Nori dagoen zuzenduta eta horren parte hartzea (balego)
6. Behar teknikoak eta aurrekontua
7. Lantaldearen osaketa, datu pertsonalak, aurretiazko esperientzia eta lankidetzaren proposamena

8. Kronograma

II. **Aukeraketa:** Behin proposamenak jasotzeko epea amaitzen denean, proiektuak ondorengo irizpide eta prozeduren arabera ebaluatuko dira:

1. **Proiektuaren kalitatea, erakargarritasuna eta berrikuntza maila**
(30 PUNTU)
2. **Diziplinarteko uztarketa** (15 PUNTU)
3. **Saretzea: proiektuan parte hartzen duten sortzaile kopurua eta bestelako eragileekin lankidetzat sustatu** (15 PUNTU)
4. **Arabako lurraldeari eta gizarteari egingo dion ekarpena** (15 PUNTU)
5. **Bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa (parte-hartzaileek jarriko dituzten baliabideak kontuan hartuko dira)** (10 PUNTU)
6. **Genero ikuspegia eta emakume sortzaileen presentzia** (10 PUNTU)
7. **Publikoaren parte-hartzea sustatzea** (5 PUNTU)

Irizpide horiek jarraituz, proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu **epaimahai** batek. Epaimahai hori berariaz eratuko da helburu honetarako, eta **Vital Fundazioko** ordezkari batek eta **Oihanederreko** lantaldeko kide batek osatuko dute.

Epaimahaiak proiektuei buruzko **informazio gehiago** eskatu ahal izango du eta, halaber, beharrezkotzat jotzen badu, **aholkularien** laguntza eskatuko du, behar bezala baloratzeko berariazko ezagutza ezinbestekoa duten gai jakin batzuetarako.

Epaimahaiak **10 eguneko epea** izango du proiektuen aukeraketa egiteko. Gehienez **2 proiektu** aukeratuko dira. Hautatutako proiektuen sustatzaileei banaka jakinaraziko zaie posta elektronikoko bidez.

3.- PROIEKTUEN SORMEN PROZESUA

Apirilean hasita, **gehienez 6 hilabete** izango dute sormen proiektua garatzeko eta gauzatzeko. Behin betiko epeak eta kronograma Oihanederreko arduradunarekin adostuko dituzte.

Aukeratutako proiektuei ahal den heinean **baliabide materialak eta teknikoak** eskainiko zaizkie. Besteak beste, prozesua irauten duen hilabete horietarako, Oihanederren entseguetarako edo lanerako **espazioa** eta **materiala** eskainiko zaie. Beti ere, espazioaren eta materialaren erabilera eraikinak berak duen jardueraren menpe geldituko da, hots, eraikineko jarduerak lehentasuna izango dute. Halaber, Oihanederreko lantaldeak **sormen prozesuari jarraipena** egingo dio, eta parte-hartzaileek haien laguntza jasoko dute behar izanez gero.

4.- PROIEKTUEN AURKEZPEN PUBLIKOAK

2021. urteko **udazkenaren hasieran** programatuko dira **Oihaneder Euskararen Etxean**.

Behin aurkezpena eginda, 2021eko azarotik aurrera, proiektuak Arabako kulturgune eta antzoki ezberdinetan aurkezteko saiakera egingo da.

6.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egitasmoa bere osotasunean **kultura sortzaileei** zuzenduta badago ere, **jardunaldia irekia** izango da, eta interesa duen edozein norbanakok parte har dezake.

Aitzitik, **deialdian** parte hartzeko **baldintza** hauek bete beharko dira:

1. **18 urte** beteta izatea
2. **Arabian** bizitzea eta bertan errolda izatea
3. **Sortzailea** izatea: produktu kulturalak garatu izana edo sormen prozesu batean parte hartu izana
4. **Laborategian** izena ematea eta parte hartzea

7.- EGITASMOAREN DIRU-POLTSA

TOP↑ARABA egitasmoak aukeratutako proiektuak diruz laguntzeko **7.500€**ko diru-poltza du. Diru kopuru hau proiektu bakarra edo bi proiektu bideratzeko erabiliko da. Diru ekarpena aukeratutako proiektuen balorazioaren eta beharren arabera izango da.

Garatu nahi den sormen proiekturako **bestelako finantziario iturri osagarriak** lortzea onartuko da, eta ebaluatzeko orduan kontuan izango da.

8.- ORDAINKETA MODUA

Ordainketa bi zatitan gauzatuko da. **Hasieran** egokitutako diru kopuruaren **%80** emango da eta gainontzekoa (**%20**) **proiektua amaitutakoan**.

Beharrezkoa ikusiz gero Oihaneder Euskararen Etxeak **diru-laguntzaren justifikazioa** eska dezake.

9.- XEDAPEN OROKORRAK eta KLAUSULAK

Ziurtzat jotzen da aurkeztutako proiektuaren egilea eta titulartasuna bermatuta daudela, eta ez direla urratu beste inoren obraren jabetza intelektualaren eskubideak.

Aukeratutako proiektuen ekoizle gisa **Oihaneder Euskararen Etxea** agertuko da. Halaber, proiektuen babesle nagusia **Vital Fundazioa** izango da.

Onuradunek diru-laguntza jasotzeko **kontratu pribatu** bat sinatu beharko dute Oihaneder Euskararen Etxeko kudeatzailearekin. Bertan diru ekarpena jasotzeko baldintza guztiak jasoko dira.

10.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA HARREMANA

Egitasmoaren, deialdiaren eta garapen-faseei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta TOP↑ARABA egitasmoaren gaineko beste argitasun eta kontu praktiko batzuk lortzeko, gurekin jar zaitezke harremanetan:

- Oihaneder Euskararen Etxea: oihaneder@oihaneder.eus / 615 986 832